

**GAIA: EAEko URAREN KONTSEILUAREN TXOSTENA, TRANTSIZIO ENERGETIKOAREN ETA KLIMA ALDAKETAREN LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKOA.**

**ASUNTO: INFORME DEL CONSEJO DEL AGUA DEL PAÍS VASCO AL ANTEPROYECTO DE LEY DE TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y CAMBIO CLIMÁTICO**

2021eko azaroaren 26an, aldez aurretik onartu zen Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legearen aurreproiektua.

Con fecha 26 de noviembre de 2021 se aprueba con carácter previo el anteproyecto de Ley de Transición Energética y Cambio Climático.

2021eko abenduaren 14an, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak aipatutako aurreproiektuari buruzko txostena eskatu zion Uraren Euskal Kontseiluari.

El 14 de diciembre de 2021 el Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente solicita informe del Consejo Vasco del Agua sobre el citado anteproyecto.

**SARRERA ETA AURREKARIAK**

**INTRODUCCIÓN Y ANTECEDENTES**

Euskadiko 2019ko BEG emisioak Europar Batasuneko emisio guztien % 0,5 izan ziren, eta Euskadiko % 86ko emisio nagusiak sortzen dituztenak energia sektorea, garraioaren sektorea eta industria dira. 2005ekin alderatuz, emisioak % 27 gutxitu ziren eta BPGd % 20 gehitu zen. Horrek esan nahi du emisioen intentsitateak % 39 gutxitu zela. Industriaren emisioak % 38 gutxitu ziren eta energiaren sektorekoak % 42. Hala ere, garraioaren emisioak % 14 gehitu ziren aldi berean.

Las emisiones de GEI de Euskadi correspondientes al año 2019 representaron una aportación del 0,5% del total de emisiones de la Unión Europea siendo el sector energético, el transporte y la industria los principales emisores con el 86% de las emisiones totales en Euskadi. Respecto al año 2005 las emisiones disminuyeron un 27% frente al PIB que aumentó un 20% lo que supone una reducción de la intensidad de emisiones del 39%. Las emisiones derivadas de la industria se redujeron un 38% y las del sector energético un 42%. No obstante, las emisiones del transporte aumentaron un 14% en este mismo periodo.

IPCCren txosten berezian proposatutako murrizketek dagokienez, Euskadiko emisioak % 14 gutxitu ziren 2010ekin alderatuz, eta 2010-2030 aldiko murrizketa lerrotik behean geratu ziren, hau da, tenperatura orokorra 2 °C baino gutxiago mugatzea. Horregatik, lan gehiago egin behar da 1,5 °C-ko helburua lortzeko.

En relación con las reducciones propuestas por el informe especial del IPCC, las emisiones en Euskadi disminuyeron un 14% respecto al año 2010, quedando por debajo de la senda de reducción 2010-2030 correspondiente a la limitación de la temperatura global por debajo de 2 ° C. Por ello son necesarios mayores esfuerzos para llegar a la senda de 1,5 ° C.

Euskadin aurreikusi diren aldaketa nagusiak hauek dira: tenperaturak orokorrean igotzea, prezipitazioen erregimena aldatzea, uraren tenperatura berotzea eta itsasertzaren maila igotzea. Aldaketa horien tamaina eta garrantzia direla eta, Lege hau onetsi beharra dago, eta autonomia erkidegoaren lurralde ordenamendu juridikoan klima aldaketaren aldagaia gehitu behar da, modu horretan, trantsizio energetikorako oinarri egokiak ezar daitezten.

En cuanto a los principales cambios esperados en Euskadi se estima un incremento generalizado de temperaturas, un cambio en el régimen de precipitaciones, un calentamiento de la temperatura del agua y el ascenso del nivel del mar. La magnitud y trascendencia de los cambios en ciernes justifica la necesidad de aprobar la presente Ley, incorporando en el ordenamiento jurídico del territorio de la Comunidad Autónoma la variable del cambio climático, de modo que se sienten unas bases adecuadas para la transición energética.

Erronka horri eman beharreko erantzunak esparru juridiko bat behar du eta esparru horrek 2050erako BEG emisioen neutraltasuna lortzeko estrategiak eta klima aldaketarekiko erresilienteagoa den lurraldea bihurtzeko ekintza planak eta tresnak definitu eta martxan jarri behar ditu, eta, horretarako, trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren alorretan erakunde arteko mekanismoak eta koordinazio organoak aktibatzen ditu.

Lege honetan ezarritako helburuak betetzeko, euskal administrazio publikoek zuzenean jardungo dute eta aurrezpena, eraginkortasun energetikoa, energia berriztagarrien ezarpen progresiboa eta eredu energetiko jasangarrirako trantsizioa sustatzen duten irtenbideak eta praktikak bultzatuko dituzte, nagusiki, autosufizientzian, descentralizazioan, hurbiltasunean eta eskuragarri dauden baliabide energetikoen aprobetxamendu ezin hobean oinarrituta.

Lege honi esker modu eraginkorrean Euskadiko errealitatera egokituko dira araudi esparrua eta nazioarteko konpromisoak, eta zero emisio garbi eta lurralde erresiliente baterako trantsizioa egiteko erabil daitezkeen estrategiak eta tresnak konfiguratu dira plangintza eta ibilbide orri baten esparruan eta azken horiek EAEko errealitate sozioekonomikoarekin eta datozen urteetako erronka eta aukerekin lerrotatuta egongo dira.

Horregatik guztiarengatik, Lege honek lagunduko du trantsizio energetiko eta klimatikoa gauzatzeko erronkari erantzuna ematen eta euskal ekonomiaren lehiakortasun oinarriak hobetuko ditu trantsizio teknologiko, digitalean eta sozialean oinarrituz.

Lege honen babes legala EAEko Autonomia Estatutuaren 11.1.a) eta 11.2.c) artikuluetan jasota dago ingurumen eta ekologiaren alorretan lurralde barneko legeria garatzeko eta egikaritzeko. Zehazki, araubide energetikoaren alorrean 6 kapitulutan egituratutako 46 artikulua ditu.

Xedapen orokorren I. kapituluan Legearen helburua eta xedeak azaltzen dira.

II. kapitulua gobernantzari buruzkoa da, eta bertan arautzen dira euskal administrazio publikoek trantsizio

La respuesta a este reto requiere establecer el marco jurídico que permita definir y poner en marcha estrategias, planes de acción y herramientas para conseguir la neutralidad en la emisión de GEI en el horizonte 2050 y avanzar hacia un territorio más resiliente al cambio climático, activando los mecanismos y órganos de coordinación interinstitucional en materia de transición energética y cambio climático.

Al objeto de cumplir con los objetivos establecidos en esta Ley, las Administraciones públicas vascas se implicarán directamente y promoverán el ahorro, la eficiencia energética, la implantación progresiva de las energías renovables y la adopción de soluciones y prácticas circulares que impulsen la transición a un modelo energético sostenible, basado fundamentalmente en la autosuficiencia, la descentralización, la proximidad, y el óptimo aprovechamiento de los recursos energéticos disponibles.

Esta Ley permitirá adaptar de forma eficiente a la realidad de Euskadi tanto el marco normativo, como los compromisos internacionales, configurando las estrategias e instrumentos que pueden utilizarse para realizar la transición a una economía con cero emisiones netas y un territorio resiliente en el marco de una planificación y una hoja de ruta alineada con la realidad de la socio-economía vasca, y con los retos y oportunidades a los que se enfrentará en los próximos años.

Por todo ello la presente Ley ayudará a dar respuesta al reto global de llevar a cabo la transición energético-climática manteniendo y mejorando las bases de competitividad de la economía vasca y apoyándose en la transición tecnológico-digital y social.

La presente Ley, que encuentra su amparo legal en los artículos 11.1.a) y 11.2.c) del Estatuto de Autonomía del País Vasco, para el desarrollo legislativo y la ejecución dentro de su territorio en materia de medio ambiente y ecología, y en materia de régimen energético, respectivamente, contiene 46 artículos que se estructuran en 6 capítulos.

El capítulo I, de disposiciones generales, plasma el objeto de la Ley y sus finalidades.

El capítulo II, sobre Gobernanza, regula las competencias y funciones de las Administraciones

energetikoarekin eta klima aldaketarekin lotuta dituzten eskumenak eta zereginak eta koordinazio, lankidetzeta eta partaidetza organoen funtzioen egikaritzea diseinatzen da, arreta berezia jarritz Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Euskal Bulegoan, laguntza eta sustapen organoa den heinean.

III. kapituluan Legearen helburuak eraginkor bihurtzeko askotariko plangintza tresnak jasotzen dira, hala nola 2050erako Ibilbide Orria, Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Estrategia etatoki erakundeek eta lurralde historikoek klimaren eta energiaren alorretan dituzten planak.

IV. kapitulua bi ataletan banatuta dago eta neutraltasuna sustatzen duten trantsizio energetikoa eta bestelako sektore politikak arautzen dira bertan. 25. artikuluan ezartzen denez, euskal administrazio publikoek berotegi efektuko gasen emisioak murrizteko lurralde-antolamenduaren eta hirigintza plangintzaren arloan gauzatzen dituzten neurriek, besteak beste, uraren erabilera iraunkorra bultzatu beharko dute. Era berean, 30. artikulua uraren erabilera jasagarria aipatzen du klima-aldaketak lurralde-antolamenduan, hiri-plangintzan eta hiri-berroneratzean dituen ondorioetara egokitzeko helburu gisa.

V. kapitulua lurraldearen eta euskal gizartearen erresiliencia bermatzeko neurriei buruzkoa da. Kapitulu horretan heltzen zaie urari buruzko neurri nagusiei, zehazki, 31. artikuluan, ingurune urtar kontinentalaren, itsas ingurunearen eta itsasertzaren babesari buruzkoan, eta 32. artikuluan, baliabide hidrikoei eta lehorteen eta uholdeen kudeaketari buruzkoan. Bere edukiak uraren plangintzaren eta kudeaketaren arloan garatzen ari diren helburu eta estrategiekin erabat bat dotozela uste da.

Azkenik, VI. kapituluan Lege honen xedapenak betetzea erraztea ahalbidetzen duten zeharkako tresnak diseinatzen dira. 45. artikuluan zerga helburuak jasotzen dira, eta horien artean ura aurrezteko sustatzea dago.

Legearen bosgarren xedapen gehigarriak IHOBE Ingurumenaren Euskal Agentzia pribatuko erakunde publikoa sortzen du, Euskadiko ingurumen kudeaketa sisteman arlo publikoa indartzeko.

públicas vascas en relación con la transición energética y el cambio climático y diseña el ejercicio de funciones por parte los diferentes órganos de coordinación, cooperación y participación en la materia, con especial atención a la Oficina Vasca de Transición Energética y Cambio Climático como órgano de apoyo y fomento.

El capítulo III contempla los distintos instrumentos de planificación con el fin de hacer efectivos los objetivos de la Ley, estos son, la Hoja de Ruta 2050, la Estrategia de Transición Energética y Cambio Climático y los planes locales y de los Territorios Históricos en materia de clima y energía.

El capítulo IV, dividido en dos secciones, procede a regular la transición energética y otras políticas sectoriales que contribuyen a la neutralidad. En el artículo 25 se establece que las medidas que las administraciones públicas vascas lleven a cabo en materia de ordenación del territorio y planeamiento urbanístico con objeto de minimizar las emisiones de gases de efecto invernadero, entre otras cosas, deberán impulsar el uso sostenible del agua. Así mismo, el artículo 30, hace referencia al uso sostenible del agua como objetivo para la adaptación a las repercusiones del cambio climático en materia de ordenación del territorio, planeamiento urbano y regeneración urbana.

El capítulo V hace referencia a las medidas para asegurar la resiliencia del territorio y la sociedad vasca. Es en este capítulo donde se abordan las principales medidas en relación al agua, concretamente en los artículos 31, protección del medio acuático continental, marino y del litoral, y artículo 32, recursos hídricos y gestión de sequías e inundaciones. Se considera que sus contenidos están alineados plenamente con los objetivos y estrategias que se están desarrollando en materia de planificación y gestión del agua.

Por último, el capítulo VI diseña los instrumentos transversales que permitan facilitar el cumplimiento de las disposiciones de esta Ley. En el artículo 45 se recogen los objetivos de fiscalidad entre los que se encuentra el fomento del ahorro de agua.

La disposición adicional quinta de la Ley crea el ente público de derecho privado IHOBE, Agencia Vasca de Medioambiente, con el fin de impulsar el reforzamiento de la gestión pública en el sistema de gestión ambiental de Euskadi.

## ONDORIOA

Jasotako dokumentazioa aztertu ondoren, Euskadiko Uraren Kontseiluak *Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Lege Aurreproiektuaren* ALDEKO TXOSTENA egin du

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 5ean.

## CONCLUSIÓN

Analizada la documentación recibida, el Consejo del Agua del País Vasco emite INFORME FAVORABLE al *Anteproyecto de ley de Transición Energética y Cambio Climático*.

En Vitoria-Gasteiz, a 5 de julio de 2022.